

JUANITA DIAZ-COTTO

Juanita Díaz-Cottok, State University of New York-en Feminismoa eta Ikasketa Latinoamerikarreko irakasleak, bere hitzaldian Latinoamerikako mugimendu feministaren garapenari eta mugimendu horretan feministen parte-hartzeari buruz hitz egin du, adieraziz "gai zaila zela" hainbat aldaera dituela eta.



Orain arte, Latinoamerikan emakume feministen bederatzi bilera ospatu dira eta lesbianenak, bost. Bilera horiek ezinbesteko garrantzia izan dute, izan ere, besteak beste, hainbat herrialdetan lesbiana talde berriak sortzea bultzatzeko balio izan du. Juanita Díaz-Cottoren iritziz, taldeak ugaritze horrek finantza-entitateentzat eta beste botere-esparru batzuentzat "arriskutsu" bihurtu du mugimendu feminista, zapaldutako emakumeak, herri- eta maila ertaineko sektoreak antolatzen baititu; "Arriskutsuak gara gu geure kasa eta inork agindu gabe antolatzen hasi garelako", baieztatu zuen.

Mugimenduaren lehenengo urteetan ezkerreko militar izatetik zetozen emakumeak *herri-sektoreak* zeritzon sartzeko ziren. Talde horiek, euren burua feminista gisa definitzen ez zutenak, beraien komunitateetan oinarrizko zerbitzuak lortzeko lan egiten zuten: ura, argia, osasun-laguntza... Beste batzuk, Plaza de Mayo Amek zuzendutako giza-eskubideak defendatzeko taldeetan parte hartzen zuten. "Orain, urte batzuk geroago, bi sektore horietan euren burua feministatzat jotzen duten emakumeak daude, mugimenduan era aktiboan parte hartzen dutenak. Badira emakumeak, parte hartzen duten gobernuan postu garrantzitsuak dituztenak, badira emakumeak *feminismoak* zer esan nahi duen ez dakitenak baina era berean parte hartzen dutenak eta badira emakumeak euren burua feministatzat jo gabe parte hartzen dutenak emakumeen arteko bilerak direlako", azaldu zuen Juanita Díaz-Cottok. Berarentzat garrantzitsua da feminismoa zer den ez dakiten emakumeak prestatzea, bileretan denbora eskaintzea feminismoaren oinarrizko kontzeptuak azaltzeari. Nahiz eta batzuetan badirudien atzera pausu bat behin eta berriz gauza berak azaltzeak eta nahiz eta ekintzaile beterranoenak ez dauden horretarako prest, emakumeen hezkuntza azpimarratzea beti positiboa da, Juanita Díaz-Cottoren iritziz.

Latinoamerikan orain arte ospatu diren emakume feministen bederatz biheretan Europan jada legeak arautu dituen hainbat gai eztabaidatu dira, esaterako, abortua, soldata-berdintasuna, aitatasun-baja... Gai horiekin batera, eta kontuan izanik emakumeen gehiengo ezkerreko taldeetako militantzia politikotik datorrela, hainbat gai politiko defendatzen dira. Latinoamerikako lesbianek gai horien gaineko kezka eta interesa dute eta feminista heterosexualekin gai askotan daude ados, horregatik militantzia bikoitza inoiz ez da arazoa izan, "lesbianen bileretan lesbianen gaiei buruz eztabaidatzen dugu", laburtu zuen Juanita Díaz-Cottok. Feminista latinoamerikarren mugimenduaren barruan arazo gehien sortu dituzten gaietako bat Latinoamerikako herrialdeetan bizi zirenek euren eta Latinoamerikatik kanpo bizi zirenen artean egiten zuten zatiketa izan da. Puerto Ricon ospatu zen bileran, latinoamerikarrek kanpoan bizi zirenetatik bereizita elkartzearabaki zuten. Erabaki horrek egonezin handia eragin zuen Latinoamerikatik kanpo bizi ziren lesbianen artean eta eztabaidak garrantzak izan ziren. Mexikon ospatu zen azken bileran gai horrek eztabaida-arrazoi izaten jarraitu du baina badirudi hein batean lasaitu egin dela antolatzaileak emakume mexikarrak eta Mexikon bizi diren Latinoamerikarrak izan direlako.



Lesbianismoa bilera feministetan

Kolonbian ospatu zuen lehenengo emakume feministen bileran ez zegoen tarterik lesbianen bilerarako. Euren parte hartzea ez zegoen programan. Izan ziren protesta anitzak zirela eta antolatzaileek mintegi bat antolatu zuten lesbianismoaren problematika eztabaidatzeko eta arrakasta erabatekoa izan zen. Mintegi horretan bileretako partaideen %80k hartu zuen parte, "horrek agerian jarri zuen emakumeek lesbianismoarekiko duten interesa, eta nahiz eta azken erabakietan ez zen era esplizituan lesbianismoaren defentsa sartu, ez dago zalantzarik horrek interes izugarria piztu duela", Juanita Díaz-Cottoren iritziz.

Perun ospatu zen bigarren feministen bileraren programan, 19 mintegi programatu ziren baina ez zen lesbianen mintegirik aurreikusten. "Sexualitateari buruzko mintegi bat programatu zen eta lesbianen artean piztu zen kezka izan zen ea mintegi horretan parte hartu behar genuen ala antolakuntzari gure arazoei buruzko espezifiko bat eskatu behar genion", azaldu zuen Juanita Díaz-Cottok. Azkenik, lesbianismoari buruzko mintegi bat antolatu zen eta lesbiana batzuk era berean sexualitateari buruzkoan ere parte hartu zuten. Azken mintegi horretan lesbianen mugimendua feministenaren barruan garatzeko garrantzi handiena izan zuten pasadizoetako bat gertatu zen, emakume perutar batek lesbianismoa

Latinoamerikarekin zerikusirik ez zuen gai bat zela adierazi zuenean. Bi perutar gazte egoera horretaz baliatu ziren publikoki euren izaera sexuala erakusteko eta esateko lesbianismoak bazuela eurekin zerikusirik.

Brasilen ospatu zen hirugarren bileran zehar ikuspen arazoa gainditu egin zen. Gay mugimendu antolatu bat zegoenez ez zen beharrezkoa izan aurreko bileretan bezainbeste borrokatzea. Gatazka sortu zen lesbiana batzuk erabaki zutelako ez zeudela prest emakume heterosexual batzuek egindako hainbat galderei erantzuteko, "zer da lesbianismoa?" bezalakoei, eta horiek interpretatu zuten bakarrik bildu nahi zutela. "Orain lesbianak talde itxietan elkartzen gara eta heterosexualak ez dute gurekin parte hartzen. Batera lan egin genuen azken aldia Argentinan antolatu zen mintegi batean izan zen, eurei galdetzeko aukera ematen zitzaien bilera batean", baieztatu zuen Juanita Díaz-Cottok.

Lesbianen ikuspena bilera feministetan oso garrantzitsua izan da azken edizioetan, gertakizun horien antolakuntzan parte hartzen dute eta euren tartea ondo zehazturik dago. Gatazka, une honetan, batetik, "autonomiaren" gaian datza, Latinoamerikan diktadurazko erregimenak poliki-poliki desagertzeak emakumeak era aktiboan gizarteko esparru askotan parte hartzea eta "instituzionalizatuen" eta "autonomoen" arteko gatazka suspertzea eragin du. Herrialde askotan bizi den gizarte-zatiketaren egoera zuzenean islatzen da mugimendu feministan. Bestalde, transgeneroek datozen lesbiana feministen bileretan parte hartzeak ere nolabaiteko polemika sortu du; eztabaida irekia dago.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gaztekeraz](#)
- [ingelesez](#)